

Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema garatzeko aholkularitza zerbitzua: **KULTURA, GAZTERIA ETA KIROI DEPARTAMENTUA.**

Saila eta €

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Zerbitzua 2013: 6.073.878 EURO

:

Izena: Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema garatzeko aholkularitza zerbitzua (Gazteria)

Kodigoa: 20

Genero egokitasuna: Handia

Aurrekontua: 339.699

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	392.145	399.646	339.699	%1,91	%-15
ZERBITZUAREN AURREKONTUAREN ARABERAKO PORTZENTAJEA.	%3,59	%5,89	%5,59	%6,41	%-5,09

Programa eta €

Programa honek Zerbitzuaren aurrekontuaren % 5.48 hartzen du. Portzentajea oso handia ez dela badirudi ere, garrantzitsua da. Atalaren gastu arruntari dagokionez, programa hau Atalaren % 21.35 baita.

Taula 2. Ekintza garrantzitsuak eta kostua.

	2012	2013	13/12
Lan taldea	399.646	339.699	%-15
Guztira	399.646	339.699	%-15

Gastuaren zati handiena teknikari taldea kontratatzen da. 6 lagunez osatutako talde hori Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako udal teknikariei aholkularitza emateaz arduratzen da.

Zerbitzu honen helburua da Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema toki mailan garatzeko laguntza eskatzen duten udalei laguntza ematea. Sistema osatzen duten zerbitzuak garatuz eta haur eta gazteen parte-hartzea sustatuz.

Sustapen Atalak Gipuzkoako udalen kasuan kasuko errealitateari erantzun nahi dio, horretarako bakoitzaren eskari eta egoera zehatzei egokituz. Beraz, herrietako esku-hartze maila desberdinak jasotzen dira, hala nola:

- Aholkularitza puntuala
- Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako **sistema sendotzeko** aholkularitza.
- **Hobekuntza egitasmo** bat garatzeko aholkularitza
- **Haurren eta gazteen toki mailako Plana** garatzeko aholkularitza

Esku-hartze motaren arabera, bai Udalak bai Gazteria Zuzendaritzak konpromiso eta inplikazio maila desberdina izango dute.

Herrian burutu beharreko esku-hartze motaren arabera, lankidetzak eta koordinazio eskema desberdinak ezarriko dira Udalaren eta Gazteria Zuzendaritzaren artean. Ekintza puntualak ezik, lankidetzak, bi erakundeen konpromisoak jasotzen dituen hitzarmenaren bidez formalizatuko da.

Jarduera

Bi erakundeen arteko lankidetzak prozesua udaletatik esku hartzeko eskari bat jasotzearekin batera hasten da. Gazteria Zuzendaritza udal bakoitzarekin hartu-emanetan jarriko da kasuan-kasuan abian jarriko den esku-hartze motari buruzko adostasuna lortzeko.

Zer den aholkularitza puntuala:

Lankidetzak mailarik **xumeena** da, eta beraz, bi erakundeen **konpromisorik apalena** eskatzen duena ere bai.

Aholkularitza horren bidez **gai zehatz baterako** eta **epe motzean** bete daitezkeen laguntza eskariei erantzun nahi zaie.

Esate baterako, honelako laguntza teknikoaren eskariak izango lirateke: gai jakin bati buruzko informazioa edo dokumentazioa eskatzea; haur, nerabe eta gazteentzako zerbitzu eta ekipamenduen kontratazio prozesuak abian jartzeko laguntza eskatzea,....

Zer den haurren eta gazteen sustapenerako sistema sendotzeko aholkularitza:

Udalak Aldundiarekin lankidetzan aritu nahi duenean, baina giza baliabideen **disponibilitatea** mugatua denean, planteamendu bat egiten da Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema sendotzeko elkarlana garatzen hasteko.

Aholkularitza mota honek, aurrekoarekin alderatuz, udalaren aldetik inplikazio gehiago suposatzen du, Haurren eta Gazteen Sustapenerako teknikari arduradunak

Bulego Teknikoko erreferentearekin hilabetean behin biltzeko konpromisoa suposatzen duelako. Bilerak hauek bi baldintzak mugatzen dituzte:

- Bertan lantzen dena, udalerriko Sustapen sistema indartzera bideratua izan behar da.
- Udalak elkarlanerako hautatutako arduradunaren disponibilitatea bileretan lan egitera mugatuko da, beraz bileratik bilerara egitekorik ez da izango elkarlanean ibiliko direnentzat.

Zer den Hobekuntza egitasmo bat garatzeko aholkularitza:

Aholkularitza mota honekin lankidetzaren maila handiagotu egiten da, baita bi erakundeen konpromiso maila ere.

Udalak haurtzaro, nerabezaro edo gazteria arloarekin loturiko zerbait hobetzeko edo arazoren bat konpontzeko laguntza eska dezake. Urte beteko epean gara daitezkeen egitasmoak izan beharko dira.

Kasu honetan ere Bulego Teknikoko kide batekin batera egitasmoa garatuko duen Sustatzaile bat izendatu behar du Udalak.

Aholkularitza mota honen bereizgarria, aurrekoarekin alderatuta, zera da, sustatzailea ez dela bileretan lan egitera mugatzen, beharrezkoa den kasuetan, bileraz kanpo ere lan egitea suposatzen du elkarlanak.

Lankidetzaren iraupenak 12 hilabetetako muga du, beraz urte betean garatu beharreko proiektuak gauzatzen dira. Urte amaieran lana ebaluatu eta hurrengo urtera begira beste hobekuntza egitasmo batekin jarraituko den baloratzen da.

Zer den haurren eta gazteen toki mailako Plana garatzeko aholkularitza:

Honako hau aldiz, lankidetzaren mailarik altuena da, eta beraz, bi erakundeen arteko konpromisorik altuena eskatuko duena ere izango da.

Udalek horrelako esku-hartze bat eskatzen duten kasuetan, **epe ertain-luzeko** esku-hartzea beharko da, horixe da behintzat Gazteria Zuzendaritzaren iritzia. Beraz, lanerako plan bat egitea ezinbestekoa izango da, eta plana bera garatzeko instituzio biek hartutako **konpromisoa** jaso beharko du. Kasu honetan ezinezkoa izango da urte betean garatzea eta honetarako hiru urteko lankidetzaren konpromisoa eskatzen da. Bestalde, toki-administrazioak beste hainbat betekizun izango ditu bete beharrekoak, hala nola:

- Konpromiso politiko eta/edo tekniko, udalerrin mailan sustapenerako sistema ezartzea bultzatzeko.
- Gazteria alorreko egitura organiko bat edukitzea, edo prozesua hastean sortzea: teknikari arduradun bat, esleitutako hainbat eginkizun eta behar adinako dedikazioa dituen, prozesuaren **“sustatzaile”** lana garatzeko.
- Eskatzen duen adinako ahalegin ekonomikoa egitea.

Gazteria Zuzendaritzak Bulego Teknikoko kide bat aukeratuko du udal horretan esku-hartzearen erreferente izateko. Pertsona horrek laguntza eta aholkularitzaren ardura izango du lan-prozesu osoan zehar.

Zer egin behar den aholkularitza zerbitzua eskatzeko

Aholkularitza maila edozein izanda ere eman beharreko lehenengo pausoa da Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritza Nagusiarekin harremanetan jartzea aholkularitza zerbitzua eskatzeko.

Udalekiko harremanetarako arduradunak erabakiko du zein mailatako esku-hartzea beharko den, noiz eta nola erantzungo zaion eskariari, eta nolakoa izango den Zerbitzuko teknikarien esku-hartzea.

Taula 3. Norengana iritsi da:

	GUZTIRA	EMAK.%	GIZON.%
2011n parte hartu duten udal teknikariak	63	81%	19%

Ikus daitekeenez, programa honetan emakume diren erabiltzaileen ehunekoa askoz ere handiagoa da. Gizonen eta emakumeen arteko proportzioa lau eta batekoa da.

Aholkularitza zerbitzuak 63 udalerrietan eskaintzen dira, zeinetan Gipuzkoako biztanleria osoaren %91,7a bizi den, eta 0 eta 29ra bitarteko biztanleriaren %91,3a.

Programa honetan azpimarratzekoa da Lurraldeko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko teknikarien taldea osatzen dutenen artean emakumeek duten kopuru handia.

Sustapeneko arduradunei ematen diegun laguntzak eragin zuzena izan dezake udalerriko beste eragile batzuegan ere, hala nola, Lurraldeko gazteleku eta haurtxokoetako hezitzaileak, informatzaileak eta gazteria-zinegotziak.

Azpimarratzekoa da zerbitzua zuzenean beren erreferentziazko udalerrietan ematen duten bost emakumek eta gizonetzko batek osatzen dutela lan-taldea. Lan-talde horretako arduraduna emakumea da.

Era honetako esku-hartzeei esker **lankidetzaren esperientzia bat** burutu dezakegu Aldundiaren Berdintasun Zerbitzuarekin batera: zenbait esku-hartze egingo ditugu hainbat udalerritako haur eta nerabeekin, gizonen eta emakumeen berdintasunaren gaiari garrantzi berezia emanez.

Era berean, genero-berdintasunaren gaiari buruzko **prestakuntza espezifikoak** ematen ari gara, Sustapeneko teknikariek gaiari behar bezala prestatuta heldu ahal izan diezaioten.

Horrekin batera lanean ari gara toki-eremuko haur, nerabe eta gazteekin lantzeko plan desberdinek genero-berdintasunaren gaia barnean hartu eta landu dezaten.

Analisi kuantitatiboa

Analisi kualitatiboa

Aterpeak: KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA.

**SAILA eta
€**

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua 2013:6.073.878 EURO

:

Izena: Aterpetxeak(Gazteria)
 Kodigoa: 20
 Genero egokitasuna: Handia
 Aurrekontua: 1.103.058

Taula 1. Programaren aurrekontua eta zerbitzuaren aurrekontu guztia adierazten duen ehunekoak

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	1.645.704	1.284.092	1.103.058	%-21,97	%-14,10
ZERBITZUAREN AURREKONTUAREN ARABERAKO PORTZENTAJEA.	%15	%19	%18,16	%26,66	%4,42

Programa honek Zerbitzuaren aurrekontuaren % 19a da.

**Programa
eta €**

Taula2. Ekintza garrantzitsuak eta kostua.

	2011	2012
Epe luzera garraio materiala	38.621	17.766
Epe luzera altzariak eta gainerakoak	2.770	2.770
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	112.377	112.377
Aterpetxeak	200.000	216.000
Altzariak eta gainerakoak	9.229	3.000
Erregaiak eta gasa	142.790	90.000
Energia elektrikoa	64.503	61.000
Ura	30.303	28.350
Jantziak eta uniformeak	12.630	5.000
Elikagaiak	168.805	225.000
Etxeko tresneria	1.264	1.264

Garbiketarako produktuak	19.773	18.785
Bestelako produktuak	89.391	75.000
Telefono bidezko komunikazioak	41.811	20.000
Aseguruak Ibilgailuenak	1.082	1.082
Aseguruak pertsonenak	9.641	9.641
Iragarkiak	84.000	10.000
Garbiketa	73.500	35.000
Segurtasuna	340.679	230.000
Bestelako lanak	202.535	70.057
Aterpetxeak: makineria	-	52.000
GUZTIRA	1.645.704	1.284.092

1.2. Aterpetxeak

Jarduera

Beren aisialdiaren barne hezkuntza, kultura, kirol eta jolaseko ekintzak egin eta beren ikasketak osa ditzaten, haur eta gazte taldeei egonaldiak eta ostatua eskaintzen dizkieten ekipamenduak dira aterpetxeak.

Taula 3. Norengana iritsi da (2011n):

	2011		
	Erreserbak GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak
Taldeko erreserbak	537	314	223
Aterpetxe kideen erreserbak	1047	402	645
Erakundeetatik egindako erreserbak	49	30	19
Egindako erreserba kopurua GUZTIRA	1633	746	887
Egindako erreserba % GUZTIRA	100	46	54

Analisi kuantitatiboa generoaren arabera

Aterpetxeetan egun ez dira erabiltzaileen datuak lantzen. Zerbitzuen neurketa egiten da; alegia, zenbat zerbitzu erabili diren urtean zehar: loaldiak, bazkariak, afariak, etab. Urtean zehar aterpetxe bakoitzean egon diren erabiltzaileen kopurua jasotzeko, eskuz jaso beharko litzateke.

	<p>Erabiltzaileen araberako datuak, erreserbak egiten dituztenen datuetatik jaso daitezke; eta datu horiek sexuaren arabera desberdinak daude (ikusi goran dagoen taula). Taulan jasotako datuek ondorengo adierazten dute: oro har, gizonak dira erreserba gehien egiten dituztenak (%54); datuak zehazkiago aztertuz gero, nagusitasun hau batez ere aterpetxe kideen artean ematen dela; gainontzeko kasuetan, taldeko erreserbetan eta erakundeetatik egindakoetan, emakumeak nagusitzen baitira. Beraz, emakumeek egiten dituzten erreserbak erabiltzaile kopuru handiagoa biltzen dituzte, erreserba hauek zerbitzu kopuru handiagoko eskaerak izaten direlarik (ondorioz, diru sarrera eta gastu handiagoa, etab.).</p>
<p>Analisi edo hausnarke ta kualitatiboa</p>	<p>Aterpetxeetan generoaren ikuspegia benetan txertatzeko, erabiltzaileen datuak kontutan izatea beharrezkoa da. Genero ikuspegia txertatzeak, egungo kudeaketan eta erabiltzen diren aplikazioetan aldaketak egitea eskatzen du; erabiltzaileei buruzko datuetatik -era erraz eta automatizatu baten bidez- ondorioak atera ahal izateko. Horrela eginez gero, aterpetxeen arloan kudeatzen den aurrekontuan, generoaren ikuspegia hobe aplikatu ahal izango da.</p>

Gazte oporraldiak: Gazte elkarteetako arduradunak: **KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA**

SAILA eta €	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua	2011:10.913.379 EURO
		2012: 6.780.307 EURO
		2013: 6.073.878 EURO

Izena: Gazte oporraldiak (Gazteria)
 kodigoa: 20
 genero egokitasuna: Handia
 Aurrekontua: 252.265
Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua

Taula 1. Programaren aurrekontua eta zerbitzuaren aurrekontu guztia adierazten duen ehunekoa

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	363.061	365.244	252.265	2.183	-112.979
ZERBITZUAREN AURREKONTUAREN ARABERAKO PORZENTAJEA.	3,33%	5,38%	4,15%	2,05%	-1,23%

Programa eta €

Programa honek Zerbitzuaren aurrekontuaren % 6,5 hartzen du. Portzentajea oso handia ez dela badirudi ere, garrantzitsua da Atalaren gastu arruntari dagokionez, programa hau Atalaren gastuen % 24.38 baita.

Taula2. Ekintza garrantzitsuak eta kostua.

	2012	2013	13/12
Garraioa	41600	35.904	-5.696
Egonaldiak eta hezitzaileen lan taldeak	221.902	150.280	-71.622
Egitarauaren jarraipena eta kudeaketa	101.742	66.081	-35.661
Guztira	365.244	252.265	-112.979

Jarduera

Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuko, Haur eta Gazteen Zuzendaritza Nagusiak, 2012an, 444 plaza eskaintzen ditu 14-17 urte bitarteko gipuzkoar gazteentzako udako

ekintzetan. Aisia eta abenturako jarduerak eta frantsesa praktikatzeko egonaldiak barnean hartzen dituen programa honen helburu nagusia da gipuzkoar gaztetxoei beren aisialdi-astialdia modu aberasgarrian erabiltzen laguntzeko politika aurrera eramatea. Aurten egonaldi bereziak ere izango dira: Ur kirolak Maulen (Zuberoan) , Surfa Zarautzen eta Antzerkia Hondarribian.

Gipuzkoako Foru Aldundiak urteak daramatza programa hau eskaintzen. Hain zuzen, honek eta 7-13 urte bitarteko neska-mutilentzako "Udalekuak" programak osatzen dute Haurren, Nerabeen eta Gazteen sustapenerako Zerbitzuaren gizarte eta heziketa jardueren udako eskaintza.

Aurtengo jarduerak uztailean eta abuztuan egingo dira eta 7, 10 eta 15 eguneko oporraldiak izango dira.

Ekintza asko eta era askotakoak eskaintzen dira. Abenturako jardueraz gain kulturalak eta ludikoak ere egiten dira oporraldietan, esate baterako: mendi ibilaldiak, eskalada, kanoiak jaistea, uretako jarduerak (piragua, bela, urpeko igeriketa, raftinga,...), tailerrak (malabarismoa, larrua lantzea...), kultura ibilaldiak.

Pirinio Atlantikoetako Departamentuko gazteekin batera, frantsesa praktikatzeko eta elkarren ezagutza bultzatzeko egonaldia burutuko dute 14 gaztek. Helburua da frantsesa ikasi, mugaz gaindiko harremanak areagotu, eta kirol ekintzen, jokoan, eta txangoen bidez ondo pasatzea.

Bestalde, musikarekin zerikusia duen "Gazterock" egonaldia ere aipatu behar da. Hau Gasteizen egingo da eta bertan Arabako gazteak eta gazte gipuzkoarrak elkartuko dira.

Dena den, txanda guztietan mota ezberdinetako ekintzez osaturiko programazioa izango dute, hau da, ekintza hezitzaileak, aisialdikoak, kirolak, kultur bidaiak eta taldeko ekintzak ere; guztiak harremanak eta aberastasun pertsonala lantzeko asmoz egingo dira.

2011n jarduera horretako partehartzaileen balorazioa 8,5eko puntukoa izan zen hamarreko eskala batean.

Taula 3. Norengana iritsi da (2011n):

Neska-mutilak	GUZTIRA	NESKEN %	MUTILEN %
Aurre izen-emateak	1554	62,48	37,52
Heziketa-premia bereziak dituztenen kopurua	23	21,74	78,26

Ez dugu generoaren araberako parte-hartzaileen daturik.

Ez dugu generoaren araberako parte-hartzaile bekadunen daturik.

Ikus daitekeenez, nesken parte-hartzearen ehunekoa ia 25 puntu handiagoa da

Analisi kuantitatiboa

	<p>mutilenaren aldean. Lurraldean burutzen diren aisia hezitzaileko eskaintza desberdinetan, normalean, nesken parte-hartzea mutilena baino handiagoa izan ohi da.</p> <p>7-13 urteko haurrentzako udalekuak programan izaten diren portzentajeekin alderatzen badugu, aztergai dugun programan parte-hartzaile nesken ehunekoa handiagoa dela ikusiko dugu, zehazki, ia 12 puntu handiagoa. Ildo horretan, azpimarratzekoa da programa honetan parte hartzen duten gazteak autonomoagoak direla (adinagatik) udalekuak programako parte-hartzaileak baino. Beraz, horrek adierazten duenez, neskek gehiagotan erabakitzen dute parte-hartzea gurasoen tutoretza edo babesetik kanpo.</p> <p>Programa honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten 17 lagunek parte hartu dute eta beste 21 bekadunak izan dira.</p>
Analisi kualitatiboa	<p>Nesken parte-hartzea mutilena baino handiagoa dela alde batera utzita, gure erronka da hezitzaile-taldeak Gazte oporraldietako jarduera desberdinetan genero-berdintasunaren gaia lantzeko gai izan daitezten haiek prestatzea.</p>

Gaztegune: Gazte elkarteetako arduradunak: **KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA. Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua**

SAILA eta €

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua 20 2011:10.913379 EURO

2012: 6.780.307 EURO

2013:6.073.878

Izena: Gaztegune
 kodigoa: 20
 Genero egokitasuna: Handia
 Aurrekontua: 387.933

Taula 1. Programaren aurrekontua eta zerbitzuaren aurrekontu guztia adierazten duen ehunekoa

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	484.920	456.392	387.933	%-5,88	%-15
ZERBITZUAREN AURREKONTUAREN ARABERAKO PORTZENTAIA.	4,44%	6,73%	%6,39	%51,58	%-5,05

Programa eta €

Programa honek Zerbitzuaren aurrekontuaren % 6,25 hartzen du. Portzentajea oso handia ez dela badirudi ere, garrantzitsua da Atalaren gastu arruntari dagokionez, programa hau Atalaren gastuen % 24.38 baita.

Taula 2. Ekintza garrantzitsuak eta kostua.

	2012	2013	13/12
Teknikarien lan taldea	456.392	387.933	%-15
Guztira	456.392	387.933	%-15

Gastuaren zati handiena honako hauez arduratzen den teknikari taldea kontratatzeko erabiltzen da:

- Gipuzkoako gazte-elkarte desberdinei zerbitzua eta aholkularitza ematea.
- Gaztegunera hurbiltzen diren gazteen informazio-eskaerei arreta ematea.
- Gipuzkoako gazte-informazioko udal zerbitzu desberdinei laguntza eta aholkularitza ematea, eta bereziki horien arduradun diren teknikariei.

<p>Jarduera</p>	<p>Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaz arduratzen den Aldundiko unitateak, haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzeko eta horren bidea errazteko eginkizuna duenez, bere xedeen artean du Gipuzkoako elkarte-sarea indartzea eta garatzea, elkarteak, egiazki, herritartasun aktiboan trebatzeko eskolak baitira. Esan behar da, gainera, elkarteak izan badira ere betidanik gizartean parte hartzeko bidea eman dutenak, gaur egun asko dibertsifikatu direla gizartean eragiteko prozesu parte-hartzaileak, eta ugaritu horretarako bitartekoak edo tresnak. Hala, bada, panorama aberats bat daukagu aurrean, populazio sektore honen sormenak ekarria.</p> <p>Gipuzkoako Gazteria Zuzendaritza Nagusiaren baitan, Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren markoaren barruan txertatzen da Gazte Informazioa eta, honen harira, Gipuzkoako gazteei informazioa eskaintzea da bere helburua.</p> <p>Gazte Informazio eta Dokumentazioko Lurralde Zentroa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuaren baitan kokatzen da eta horretaz gain, Euskadiko Gazte Informazio eta Dokumentazio Sarearen barruan ere bada.</p>																				
<p>Analisi kuantitatiboa</p>	<p style="text-align: center;">Taula 3. Norengana iritsi da:</p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <thead> <tr> <th colspan="4" style="text-align: center;">2011</th> </tr> <tr> <th></th> <th style="text-align: center;">GUZTIRA</th> <th style="text-align: center;">EMAKUMEEN %</th> <th style="text-align: center;">GIZONEN %</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td style="text-align: center;">Gazteguneko erabiltzaile diren gazte-elkarteen arduradunak guztira.</td> <td style="text-align: center;">34</td> <td style="text-align: center;">29.5%</td> <td style="text-align: center;">70.5%</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">Gazteguneko Gazte Informazioko Zerbitzuan arreta jaso duten pertsonak guztira</td> <td style="text-align: center;">1429</td> <td style="text-align: center;">63,8%</td> <td style="text-align: center;">36,2%</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">Gaztegunetik aholkularitza jaso duten udaletako gazte-informatzaileak guztira</td> <td style="text-align: center;">26</td> <td style="text-align: center;">81%</td> <td style="text-align: center;">19%</td> </tr> </tbody> </table> <p>Ikus daitekeenez, programa honen bitartez garatzen diren hiru jardueramota nagusietan emakumezko erabiltzaileen proportzioa askoz ere handiagoa da gazte-informazioan eta gazte-informatzaileentzako laguntzan. Alderantziz, gazte-elkarteen kasuan gizonezko erabiltzaileen portzentajea handiagoa da.</p>	2011					GUZTIRA	EMAKUMEEN %	GIZONEN %	Gazteguneko erabiltzaile diren gazte-elkarteen arduradunak guztira.	34	29.5%	70.5%	Gazteguneko Gazte Informazioko Zerbitzuan arreta jaso duten pertsonak guztira	1429	63,8%	36,2%	Gaztegunetik aholkularitza jaso duten udaletako gazte-informatzaileak guztira	26	81%	19%
2011																					
	GUZTIRA	EMAKUMEEN %	GIZONEN %																		
Gazteguneko erabiltzaile diren gazte-elkarteen arduradunak guztira.	34	29.5%	70.5%																		
Gazteguneko Gazte Informazioko Zerbitzuan arreta jaso duten pertsonak guztira	1429	63,8%	36,2%																		
Gaztegunetik aholkularitza jaso duten udaletako gazte-informatzaileak guztira	26	81%	19%																		
<p>Analisi edo hausnarketa kualitatiboa</p>	<p>Azpimarratzekoa da Gipuzkoako gazte-erakundeetako arduradunen artean emakumeek duten ordezkartza txikia eta Gazteguneko gure zerbitzuaren erabiltzaile diren entitateetan kopuru horrek duen korrespondentzia.</p> <p>Orain arte lehentasuna gazte-elkarteentzako laguntzan oinarritu da, generoari dagokionez entitate horien arduradun zein zen alde batera utzita. Badirudi adierazleen jarraipena egitea komeni dela eta horren arabera erabakiak hartzea.</p>																				

Gazte Informazioko Zerbitzuaren erabiltzaileei dagokienez, neskek mutilek baino dezente gehiago erabiltzen dutela ikus dezakegu; eta joera horixe da gure Zerbitzutik nerabeei eta gazteei eskaintzen zaizkien programa gehienetan ere.

Nesken ordezkartza handiago horren arrazoia izan daiteke zerbitzu honek duen erlazioa hezkuntzaren alorrean aukerak bilatzearekin eta, lanaren alorrean etorkizunari aurre egin ahal izateko, curriculumerako esperientzia lortzearekin.

Gazte-informazioko udal-zerbitzuetako arduradunei laguntza emateko programan emaitza garbia da, era honetako erantzukizunak betetzen dituzten emakumeen kopurua gizonena baino askoz ere handiagoa baita. Lanbide hau, hezkuntzarekin eta “pertsonek zaintzarekin” lotuta dauden beste batzuekin batera, tradizioz emakumeek bete dituzten esparruak dira.

Talde honetako kideekin beren esku-hartzeetan generoaren ikuspegia eransteko moduak lantzen hasi gara prestakuntza espezifikoaren bitartez.

Udalekuak: KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA.

SAILA eta €	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Zerbitzua	2011:10.913.379 EURO
		2012: 6.780.307 EURO
		2013: 6.073.878 EURO

Izena: Udalekuak (Gazteria)
 Kodigoa: **20**
 Genero egokitasuna: Handia
 Aurrekontua: 378.398

Taula 1. Programaren aurrekontua eta zerbitzuaren aurrekontu guztia adierazten duen ehunekoa

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUA EUROTAN	544.591	547.866	378.398	3.275	-169.468
ZERBITZUAREN AURREKONTUAREN ARABERAKO %	5%	8%	6,23%	3%	-1,77%

Programa eta €

Programa honek Zerbitzuaren aurrekontuaren %8 hartzen du. Portzentajea oso handia ez dela badirudi ere, garrantzitsua da. Atalaren gastu arruntari dagokionez, programa hau Atalaren gastuen % 29.3 baita.

Taula2. Ekintza garrantzitsuak eta kostua.

	2012	2013	13/12
Garraioa	62.400	53.856	-8.544
Egonaldiak eta hezitzaileen lan taldeak	332.853	225.420	-107.433
Programaren jarraipena eta kudeaketaren gastuak	152.613	99.122	-53.491
Guztira	547.866	378.398	-169.468

Jarduera

1. Oporretako hezkuntza-aisialdirako zerbitzua

Atalak udan antolatzen dituen hezkuntza-aisialdirako programak oporraldi luzean hautabide kualifikatuak izan daitezzen eskaintzen dira. Ildo horretan, haur eta gazteek oporretan egiten dituzten jardueri hezkuntza-edukia emateko aukera eskaintzen dugu.

Bizikidetzarako gunek bat da, gozatzeko, baina, aldi berean, baita norberaren

autonomia sendotzeko, ingurune eta berdinen talde berriekin harremanetan sartzeko, trebetasun eta abilitate berriak bereganatzeko, eta abarretarako ere.

Programen kudeaketa-lanak garatzeko, laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatu zen, Horbel S. Coop. enpresari esleitu zitzaiona.

Ondokoak izan dira inskribatzeko prozesuen garapenean lankidetzan aritu diren udalerrriak: Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Donostia, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Eskoriatza, Hernani, Hondarribia, Irun, Lasarte – Oria, Legazpi, Oñati, Ordizia, Pasaia, Tolosa, Urnieta, Villabona, Zarautz eta Zestoa. Hau da, inskribatzeko eta informazioa emateko 25 gune antolatu ditugu, Gazteguneko eta Gipuzkoa Enparantzako bulego zentraleraz gain.

1.1 Udalekuak

Udalekuak 2011 programak, 7 eta 13 urte bitarteko haurrei zuzenduta, 1.607 plaza eskaini ditu aurten. Eskaintza hau uztail eta abuzturako egiten da, eta gehienbat Arabako eta Bizkaiko foru aldundiekin lankidetzan antolatzen da.

Honakoak dira programan lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Hiru lurralde historikoetako haurrei ahalbidetzea oporraldiez gozatu ahal izatea.
- Parte hartzen duten haurrak olgetan aritzea eta haien arteko bizikidetzaren erraztea.
- Olgetako aisialdia sustatzea.
- Parte hartzaileak gure inguruko natur ingurunera hurbiltzea.
- Euskara aisialdiko jardueretan komunikatzeko hizkuntza bezala erabil dezaten ahalbidetzea.
- Parte hartzaileei zona bakoitzeko ohiturak eta kultur baliabideak ezagutzera ematea.

Laguntasuna, batasuna eta elkartasuna, besteak beste, sustatzea eguneroko bizikidetzan.

Taula 3. Norengana iritsi da (2011n):

Haurrak	GUZTIRA	GIZONEN %	EMAKUMEEN %
Aurre izen-emateak	5.531	43,36%	56,6%
Heziketa-premia bereziak dituzten haur kopurua	77	63.6%	36.3%

Analisi kuantitatiboa

	<p>Ez dugu sexuaren araberako 2011ko parte-hartzaileen daturik.</p> <p>Ez dugu sexuaren araberako 2011ko parte-hartzaile bekadunen daturik.</p> <p>2011n jarduera horretako parte-hartzaileen balorazioa 8,45eko puntukoa izan zen hamarreko eskala batean.</p> <p>Ikus daitekeenez, parte hartzen duten nesken ehunekoa mutilena baino 13,24 puntu handiagoa da. Lurraldean eskaintzen diren aisia hezitzaileko eskaintza desberdinetan, normalean, nesken parte-hartzea handiagoa da mutilena baino.</p>
Analisi edo hausnarketa kualitatiboa	<p>Nesken parte-hartzea mutilena baino handiagoa dela alde batera utzita, gure erronka da hezitzaile-taldeak udaleku desberdinetan genero-berdintasunaren gaia lantzeko gai izan daitezen haiek prestatzea.</p>

02 KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

Dep. eta €

KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA 02 2013: 41.638.102 EURO
:

Programa eta €

Izena: **Erakustaretoa KM** (2013ko Aurrekontu proiektuan 12.programako – Euskañ Arte Garaikidea – parte izatera pasatu da)
Kodea: 16
Generoaren garrantzia: Ertaina
Aurrekontua: 320.000

1. Taula. Programako aurrekontuaren zenbatekoa eta azken urteetako departamentuarekiko portzentajea

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	446.693	325.910	320.000	-27,04%	-1,81%
DEPARTAMENTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	1,54%	1,42%	0,77%	-7,79%	-45,77%

Programa honek Departamentuaren aurrekontuaren % 0,77 hartzen du.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jarduera nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua

	2012	2013	13/12
Erakusketak	162.200	100.000	-38,35%
Argitalpenak	65.000	50.000	-23,08%
Programa pedagogikoa	58.000	58.000	-----
Beste batzuk	---		
Guztira	285.200	208.000	-27,07%

Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak

Aurrekontu programa honetan jasotzen dira Departamentuak erakusketa arloan, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneko erakustaretoan, dituen jarduera ildo nagusiak.

Helburu orokorra da gaur egungo sorkuntzan oinarritutako erakusketa programa bat

garatzea eta herritarrak oraingo artera hurbilaraztea.

artzaileak: herritar guztiak oro har eta ikasleak bereziki, artea gipuzkoar guztien biritza osoko ikaskuntzaren zati izan dadin.

Jarduerak: nazioarte mailako proiektzioa duten erakusketak antolatzea, Europako beste arte-zentro batzuekin lankidetzan edo bakarka.

3. taula. Erakusketetan parte hartu duten artistak, 2010eko urritik 2012ko urtarrilera

Erakusketaren izena	ARTISTAK GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA K
Kontrairindarkeriak: Emakumeenganako erasoaren aurkako praktika artistikoak (2010/10/28-2011/02/05)	15	2	13
Artista Gazteen XLIV. Lehiaketa (2011/03/17-2011/05/14)	21	12	9
Jose Antonio Sistiaga. "Lorategi irudikatu bateko islak" Bakarkako erakusketa (2011/06/16-2011/09/24)	1	1	
Hiriko fikzioak	10	8	2

Ikus daitekeenez, oro har, gizon edo emakume artisten kopurua baliokidea da. Hori gaiaren eta erakusketa motaren arabera izaten da.

4. taula. Erakustaretoko bisitariak, 2010eko urritik 2012ko urtarrilera

Erakusketaren izena	Bisitari kopurua	Gizonak	Emakum eak	Bisita gidatueta ko bisitariak	*Haurrak	*Inaugur azioa
Kontrairindarkeriak: Emakumeenganako erasoaren aurkako praktika artistikoak (2010/10/28-2011/02/05)	2.316	772	767	651	55	71
Artista Gazteen XLIV. Lehiaketa (2011/03/17-2011/05/14)	1.695	606	490	320	79	200
Jose Antonio Sistiaga "Lorategi irudikatu bateko islak" Bakarkako	3.727	1524	1.581	228	266	128

**Azterketa
kuantitatiboa
generoaren
arabera**

erakusketa (1011/06/16-2011/09/24)							
Hiriko fikzioak	2.052	819	601	398	94	140	

*Ez dago daturik generoaren arabera aztertzeko.

Generoaren azterketa soilik egin daiteke bisita gidatuetakoak eta inaugurazioetakoak ez diren bisitarien datuekin. Haurren kasuan ere ez da generoaren bereizketarik egin.

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Azterketak argi uzten du erakusketaren gaia funtsezkoa dela artistak zehazteko. Egiatzatu daitekeenez, emakumeekin zerikusia duten gai bereziagoetan haien partaidetza handiagoa da; aldiz, gai orokorragoetan gizonezko artisten proportzioa handiagoa da.

Hori horrela da, hautaketa ez delako egiten alderdi kuantitatiboari begira, kualitatiboari baizik. Taldeko erakusketa bat antolatzen denean, beti saiatzen gara genero politika bat garatzen eta gizon-emakume artisten arteko ekitatea mantentzen; alabaina, ez dugu diskriminazio positiboko politikarik ezartzen. Gauza bera gertatzen da lehiaketetako erakusketekin, epaimahaiak ere irizpide horiek erabiltzen ditu. Hori bera esan genezake bakarkako erakusketez. Adibidez, 2012an, programan jasota dauden bakarkako bi erakusketak bi emakumerenak dira.

Bisitariei dagokienez, ditugun datu partzialak oinarri hartuta, ikus dezakegu gizonezkoak gehiago direla, diferentzia txikia bada ere, eta erakusketaren gaiak horretan ez du eraginik.

Bukatzeko, azpimarratu behar da, bai epaimahaietan bai lantaldeetan parekotasun politika bat ezartzen dugula gizon-emakumeen parte hartzea bidezkoa izateko edo emakumeen parte hartzeari lehentasuna emateko.

Kirolaren sustapena: KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

Dep. eta €

KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA: 2013 41.638.102 EUROS

:

Izena: Kirolaren sustapena

Kodea: 30

Generoaren garrantzia: Handia

Aurrekontua: 13.564.008

	2011	2012	2013	12/11	13/12
GASTUAK EUROTAN	18.921.493	16.773.548	13.564.008	%-11,35	%-19,13
DPTUAREN AURREKONTUAREN GAINEKO PORTZENTAJEA	%65,47	%35,77	%32,58	%-45,36	%-8,92

Programa
eta €

Kirolaren Sustapena izeneko programa Kirol Zuzendaritza Nagusiaren funtsezko esku hartze ildo da, eta Departamentuaren aurrekontuaren % 66,7 hartzen du (Departamentua aurreko Kirol Zuzendaritzak eta Kanpo Ekintzako Zuzendaritzak osatzen zutenean). 2012an, taulan garbi ikus daitekeenez, portzentajearen zehaztasun nabarmen murriztu da (% 29,7), funtsean Departamentuaren aurrekontu orokorra handitu egin delako egitura berriaren ondorioz, zuzendaritza berriak baitaude.

Nolanahi ere, esan daiteke, kopuru absolutuetan, programak 2.147.945 euroko murrizketa izan duela, hau da, % 11,35eko beherakada izan du.

Programa horretarako aurrekontuan xedatuta dauden 16.773.548 eurotatik 10.251.543 euro (% 61,15) ebaluatu dira, hain zuzen ere adierazleen bidez zuzenean ebaluatu daitezkeen jardueraren ildoei dagozkienak.

2. taula. Aurrekontu programan sartutako jardueraren nagusiak eta aurrekontuan jasotako gastua.

Jardueraren ildoak	2012	2013	13/12
0-18 programa (6-12)	1.920.067	1.327.260	69,13
0-18 programa (12-16)	378.707	353.500	93,94
Teknifikazioa	1.257.188	894.364	71,14
Kirol Federatua	2.084.259	1.258.567	60,38
Goi maila	4.611.320	4.220.502	91,52
Beste batzuk	6.512.007	5.509.815	84,61
Guztira	16.763.548	13.564.008	80,91

	<p>Egiaztatu daitekeenez, programaren gastu handienetako bat goi mailako kirolari dagokiona da, eta hor sartzen dira ikuskizuneko kiroleko taldeei ematen zaizkien laguntzak eta KIROLGI Fundazioarentzako ekarpenak.</p> <p>Goi mailako kirolaz aparte, gastu garrantzitsuenak eskumen maila handieneko esku hartzeei dagozkienak dira: 0-18 programa (2.298.774 €), kirol federatua (2.084.259 €) eta teknifikazioa (1.257.188 €).</p> <p><i>Beste batzuk</i> atalean sartzen da, eta nabarmentzen da, kirol ekipamenduen gastua (3.105.000 €). Gastu hori ez da azterketan sartu, gaur egun zaila baita adierazle egokiak jartzea.</p>
<p>Programaren helburuak, hartzailak eta jarduerak</p>	<p>Lehen ere adierazi denez, Kirolaren sustapena da Kirol Zuzendaritza Nagusiaren funtsezko programa eta bere helburua da gipuzkoarrei jarduera fisikoa eta kirola praktikatzeko bideak eskaintzea, haien premiei, interesei eta nahiei egokitutakoak eta Gipuzkoako gizartearen garapenari dagokion kalitate maila gordeta.</p> <p>Helburu hori lortzeko, aurrekontu programak baditu biztanleria segmentu ezberdinei zuzendutako zenbait programa:</p> <p>0-18 programa adin tarte horretako gazteei zuzenduta dago baina hiru multzotan banatzen da: 0-6 (garatu gabe dagoena), 6-12 (Eskola kiroleko programa) eta 12-18 (Gazteen artean Kirola Sustatzeko Plana edo GKP). Programaren helburua da Zuzendaritzaren xedea adin tarte horietan ezartzea, hain zuzen ere adin hori funtsezkoa delako ohitura osasungarriak eta kirola egitekoak sortzeko.</p> <p>Kirol federatuko programaren helburua da Gipuzkoako kirol federazioak modernizatzea.</p> <p>Goi mailako kirolari ematen zaizkion laguntzen eta KIROLGIri egiten zaion ekarpenaren oinarrian dago kirola Lurraldearen identitatea eta gizarte kohesioa lortzeko elementutzat jotzea; hala, aurrekontu maila handia duten ikuskizuneko kiroleko taldeak dituzten klubak finantzatzen dira eta lankidetzak bultzatzen dira KIROLGI Fundazioarekin, goi mailako eta errendimendu handiko taldeei nahiz banakako kirolariei laguntzeko Fundazioaren bitartez.</p> <p>Txosten honetan aipatzen diren teknifikazioko jarduerak talentudun kirolariak detektatzeko eta prestatzeko programakoak eta Gipuzkoako klubekin futbolaren teknifikaziorako izenpetutako lankidetzak hitzarmenekoak dira. Programaren nahiz hitzarmenaren helburua da goi mailara iristen laguntzea horretarako gaitasuna eta jarrera erakusten duten kirolariei.</p> <p>Beraz, esan daiteke programa horren inguruan hemen ebaluatuko diren esku hartze ildoak direla, funtsean, ikasleei zuzendutakoak (6-12), kirolariei edo kirolari potentzialei zuzendutakoak (12-18), kirolari federatuei zuzendutakoak, eta goi mailara iritsi diren edo iristeko aukera garbiak dituzten kirolariei zuzendutakoak. Jardueren dagokienez, ebaluazio honetan ondorengo jardueren finantzazioa jasotzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 6-12 eta 12-18 adin tarteetako erakusteko jardueren antolaketa eta kudeaketa.

- 6-12 adin tarteko lehiaketa jardueren antolaketa eta kudeaketa.
- 12-18 adin tarteko saskibaloiko, eskubaloiko, eta arraunketako lehiaketa jardueren antolaketa eta kudeaketa.
- Gipuzkoako federazioen zeregin publikoak, modernizazioa eta beste jardura batzuk.
- Etorkizuneko kirolarientzako orientazio zerbitzuak, kirolari horientzako laguntza ekintzak eta lurralde mailako teknifikazio jarduerak.
- Gipuzkoako goi mailako kirola laguntzea diru laguntzen Dekretuaren eta Kirolgi Fundazioari egindako babes ekarpenaren bidez.

3. taula. Aipatutako jardura ildoen onuradunak 2011n

ILDOA	ADIERAZLEA	GUZTIRA	GIZONEZK OAK	EMAKUME ZKOAK	EMAKUMEA K %TAN
0-18	Eskola kirolariak Erakusteko jarduerak	27.867	14.457	13.410	48,12
Goi maila	Ikuskizun Dekretuko kirolariak	116	62	54	46,55
0-18	Eskola kirolariak Lehiaketa jarduerak	21.798	12.123	9.675	44,38
0-18 (12-16)	GKPko kirolariak	5.412	3.012	2.400	44,35
Goi maila	Kirolgi ¹ kirolariak	2.921	1.666	1.255	42,96
TEKNIFIKAZ IOA	Talentudunen Planeko kirolariak	15	10	5	33,33
TEKNIFIKAZ IOA	Etorkizuneko kirolariak	147	99	48	32,65
FEDERATUA	Federatuen lizentziak	80.104	58.704	21.400	26,72
TEKNIFIKAZ IOA	Futboleko Hitzarmena, trebatzen ari diren kirolariak	6.709	5.706	1.003	14,95
	Guztira	145.089	95.839	49.250	33,94

Azterketa kuantitatiboa generoaren arabera

Azterketa edo hausnarketa kualitatiboa

Ikus daitekeenez, adierazle globalen arabera, ebaluatutako programen eta laguntzen onuradun guztien heren bat baino gehiago emakumeak dira.

Aurrez esan behar da generoak aurrekontuan duen eragina ebaluatzeko eskuragarri dauden adierazleek ez dutela guztiz islatuko emakumeen kirol jardura orokorra Gipuzkoan. Adibidez, ezin izan da sartu udaletako kirol jardueraren daturik, nahiz eta

¹ Ez dira jaso 182 kirolariri dagozkien banatu gabeko datuak

2009ko datuek erakusten diguten udaletako kirol instalazioetan izena emanda dauden emakumeak 75.438 direla (guztira izena emanda dauden pertsonak 159.355 direla kontuan hartuta), hau da, ia erdiak % 47,34. Eta, aurrekontu mailan, kopuru hori ezin bazaio ere zuzenean kirol ekipamenduetako gastuari egotzi, garbi dago lotura zuzena daukala aurrekontuetan xede horretarako bideratutako 3.105.000 euroekin.

Erabilgarri ditugun adierazleek esku hartze ildoaren araberako portzentaje banakatuak ematen dituzte, eta portzentaje horiek % 14,96tik (Futboleko prestakuntza hitzarmeneko emakume onuradunak) % 48,12ra bitartekoak dira (Eskola Kiroleko programan erakusteko jardueretan parte hartzen duten emakume kirolariak).

Illoetako bakar batean ere ez da parekotasuna lortzen, nahiz eta **ildoetako erditan % 40a gainditzen den.**

Emaitzak aztertzerakoan kontuan hartu behar da Lurraldeko kirol jardueraren errealtatea, izan ere lortutako datuak interpretatzeko jakin behar da zeintzuk diren kirol jarduerarako ohiturak Gipuzkoan eta Administrazioak zer aukera duen ohitura horiek aldarazteko.

Baldintzapen soziokulturalek eragin dute gaur egun horren nabaria den gizon-emakumeen arteko desberdintasuna kirol jardunean. Baldintzapen horien bilakaerari eta Administrazioaren esku hartzeari esker, kopuru horiek aldatzen ari dira berdintasunera hurbilduz; alabaina, kirolaren oinarriko egitura tradizionalak (klubak eta federazioak) bultzatu duten ereduak eragin handia du eta hori garbi islatzen da emakumeen kirol jardunari buruzko datu orokorretan. Horren adibide da futboleko trebakuntzan parte hartzen duten emakumeen portzentaje baxua (% 14,96), batez besteko orokorra nabarmen aldatzen duena.

Elkarteen eta federazioen arloan adierazitako desberdintasuna oso adierazgarria da epaileei (% 16,9), teknikariei (% 6,8) eta, bereziki, federazio eta klubetako zuzendaritza karguei dagokienez. Azken horien kasuan, lurralde federazioetako lehendakari kargutan emakumeak % 6,6 badira ere, zuzendaritza batzordeetako kideen kasuan portzentajea askoz ere baxuagoa da.

Administrazioaren esku hartzea handitzen den neurrian, emakumeen kirol jarduna ere handitu egiten da. Hori dela eta, portzentaje handienak Administrazioak diseinatutako eta kudeatutako programetakoak dira. Zehazki, emakumeen parte hartzearen indizeak parekotasunera iristen ari dira ondorengo programetan: Eskola Kirola/ erakusteko jarduerak (% 48,12), Eskola Kirola /lehiaketa jarduerak (% 44,38) eta Gazteen artean Kirola Sustatzeko Plana (% 44,35).

Goi mailako kirolaren kasuan beste horrenbeste gertatzen da, Ikuskizuneko Kirolaren Dekretuaren laguntzak jasotzen dituzten onuradunen % 46,55 emakumeak baitira eta Kirolgiren ekarpenen onuradunen % 42,96 ere emakumeak baitira. Hori horrela da kontzeptu horretan faktore erabakigarria ez delako kirolarien kopurua, emaitzak baizik. Beraz, hemen adierazten diren portzentajeak ez lirateke berdinak izango kontuan hartuko bagenu kirolari bakoitzari berariaz xedatzen zaion aurrekontua, praktikan, gizonetzko kirolariei edo taldeei egindako ekarpena emakumezkoiei egindakoa baino handiagoa baita.

² Ez dira jaso 182 kirolariri dagozkien banatu gabeko datuak

Kirol arloko Berdintasun Planaren bitartez kendu nahi dira Gipuzkoan emakumeen kirol jardunaren berdintasuna eragozten duten oztopoak. Plan hori Gipuzkoa Kirolak webgunean argitaratuta dago: <http://www.gipuzkoakirolak.net/orria.php?hizkntz=2&pg=71>

Jarraian azaltzen da 2011n egindako jardueren zerrenda

4. taula. 2011n egindako ekintzen zerrenda

Jarduketa	Egoera
Kirol Zerbitzuko webgunearen berdintasun atala diseinatu eta garatzea.	Burutua
Datuen prozesuan generoaren ikuspegia sartzea	Burutzen.
Kirol arloko maila ezberdinetan parte hartzen duten emakumeen egoerari buruzko diagnostikoa egitea	Burutzen.
Goi mailako kirolean oztopoak eta diskriminazio egoerak identifikatzea	Burutua.
Egindako proposamenak eskola kiroleko programan sartzea	Burutzen.
"Berdintasun politikak goi mailako kirolean (8. mozioa, 2009)" azterlanaren eta "Goi mailako kirol jardueraren eragina baloratzeko irizpideak eta aldagaiak" agiriaren gomendioak ezartzea.	Burutzen.
Emakumezkoen futboleko eta emakumezkoen arraunketan diskriminazio egoerak ezabatzea.	Burutzen.
Diru laguntzak emateko irizpideak berrikustea eta aldatzeko proposamenak egitea	Burutua.

Azkeneko jarduera horren ondorioz, diru laguntzak emateko irizpideak aldatzeko proposamen bat egin zen eta ondorengo baldintzak eranstea proposatu zen:

5. taula

Baldintzak/ diru laguntza lerroa	Jasotako diru laguntzaren (edo aurrekontu orokorraren) * genero eragina	Lizentzien datuak (kirolariak, epaileak eta teknikariak, sexuaren arabera banatuta)	Txostenean azaltzea emakumeak (kirolariak, epaileak, teknikariak, kudeatzaileak) kirol munduan txertatzeko egindako jarduera bereziak	Hizkera ez sexista erabiltzea aurkeztutako jardueren txostenean	Diruz lagundutako jardueren publizitatean hizkera eta irudi ez sexistak erabiltzea
Federazioak	✓	✓	✓	✓	✓
Udalak	✓			✓	✓
Kirol gaia	✓	✓	✓	✓	✓

Diruz laguntzekoak diren Kirol Zuzendaritza Nagusiaren jardura ildoan barruan irizpide berezi batzuk txertatu dira emakumeen kirol jarduna sustatzeko:

- Laguntza lerro berezi bat finkatu da berdintasuneko ekintzak garatzen dituzten Gipuzkoako kirol erakundeentzat (11. eranskina, 20.000 €).
- Laguntza lerro horretan, bi erakunde hautatu ziren, Judo Club Usurbil eta EHU (Saskibaloia), eta horiekin lankidetzat hitzarmen bana sinatu da beren berdintasun programak gauzatzeko.
- Ikuskizuneko kirol taldeentzako diru laguntzen lerroaren barruan, emakumezko taldeen irizpidea txertatu da eta 120.000 € xedatu dira horretarako; hala, Bera Bera RT, AD Real Sociedad eta Txingudi SE taldeek kontzeptu horrengatik 40.000 euro jaso dituzte.

- Herri Kirolak, Arraunketa eta Pilota federazioekin hitzartutako kontratu-programetan zenbait klausula erantsi dira kirol modalitate horietan berdintasuna lortzeki buruz.

6. taula. Kirola Sustatzeko Programa

ILDOA	1- Osasuna	2- Hezkuntza	4 - Lan ordaindua	7 - Aisia eta kirola	10 - Partaidetza
0-18 Eskola kirolariak Erakusteko jarduerak	✓	✓		✓	✓
GOI MAILAKO KIROLA Ikuskizun Dekretuko kirolariak			✓	✓	✓
0-18 Eskola kirolariak <i>Lehiaketa</i> jarduerak		✓		✓	✓
0-18 (12-16) Gazteen Kirol Planeko kirolariak	✓			✓	✓
GOI MAILAKO KIROLA Kirolgiko ² Kirolariak			✓	✓	✓
TEKNIFIKAZIOA Talentudunen Planeko kirolariak				✓	✓
TEKNIFIKAZIOA Etorkizuneko kirolariak				✓	✓
FEDERATUA Federatuen lizentziak	✓		✓	✓	✓